

Baudelairearen heriotza

Asier Arakistain Alberdi

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2007



Zumaiko Udala

enkar
txanpa



Baudelaireren heriotza

Asier Arakistain Alberdi

Julene Azpeitia 20. ipuin lehiaketa

2007

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Asier Arakistain Alberdi (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Telefonoak jo du.

“C’est le but de la vie, et c’est le seul espoir.
Qui, comme un élixir, nous monte et nous enivre,
Et nous donne le cœur de marcher jusqu’au soir”

Ohean gaude. Bakarrik. Telefono hotsak ez ditu bere ferekak eten. Bere eskuek, bere begiradak, maitekiro arakutzen dute ene gorputza. Berea naiz. Osorik.

Orduak igaro ditzake niri begira. Orduak. Egunak. Inoiz ez da laztan eta begiradez haratago joan. Eta ez dut nahi. Ez dut nahi gure harremana hondatzea.

Aspaldikoa da gure harremana. Hain aspaldikoa non orain nire gorputz biluztua miresten duten bi begi zahar hauek, ilusioz eta bizi-grinez beteriko mutil-koxkor baten begirada ziren. Baigorriko larretan hazitako mutila malenkoniaz beteriko agure bihurtua.

Badakit urte guzti hauetan hamaika maitale igaro direla bere besoetatik, begiradapetik. Baina jakin badakit ni naizela desiratuena. Bakarra. Bere bizitzaren azken txangoan aldamenean behar nauena. Ni, soilik ni naizelako bere bizitzaren xedea eta esperantza bakarra. Begi aurrean ihesi doakion bizitzaren helduleku bakarra.

“A travers la tempête, et la neige, et le givre,
c’est le clarté vibrante à notre horizon noir”

Irigoien apez gazteak aurkeztu gintuen. Port Vendresen. Portu txikia izanagatik frantses armada osoa bertaratua zela zirudien. Ehunka, milaka gazte uniformedun batera zein bestera, urduritasunak zein beldurrak sorturiko ezin egona baretu ezinik.

Zuzenean eraman ninduen Irigoienek gaztearengana. Bere begietan ez zen gainontzeko gazteetan bezala izurik nabari, ez beldurrik ez eta urduritasun apurrik ere. Inoiz herritik irten gabeko mutiko harentzat bizitzak eskaintzen zion lehen abentura zen. Gizon bihurtuko zuen abentura. Berdin ziren Aljerretik zetozen berriak, berdin portuko ostatuan entzundako izugarrikeriak. Ezerk ez zuen beldurtuko Baigorriko ehiztaririk abilena. Inork ez zuen Eñaut geldiaraziko.

Damutuko zitzaion berandu baino lehen Pabeko kasernan bere abilezien berri eman izana. Bi asteren hondarrean Aljerrerrantz ontziratzeaz gain, Kabiliako Aures mendi kaskoetara bidali baitzuten. Felagen eraso gehien jasaten zituen frantses postura hain zuzen ere.

Ontziratuta aurretik argitu zidan Irigoienek nire eginbeharra. Eñautek frantsesez jakin baldin bazekien ere, basamortuan gaizki ulertu batek bere biziaren isuria eten ez zezan, manu frantsesen aginduak ongi baino hobeki betetzeko frantses mintzoa hobetzen lagundu behar nion.

“C’est un Ange qui tient dans ses doigts magnétiques

Le sommeil et le don des rêves extatiques,

Et qui refait le lit des gens pauvres et nus;”

De Gaulle jeneralak “Athos” ontzikoak ikusita, laster emango zuen Aljerretik erretiratzeko agindua. Hura baitzen hura armada baten jitea! Ene jainkoa.

Ontziko sotoak inoiz itsasoa ikusi gabeko ehunka gaztez mukuru, ezin deskriba daitekeen kinoaz, hango ulu eta negar, hango oka eta bortxa. Aljerren infernua zain bazuten hura purgatorioa zen.

Baigorriarra aldiz, nahiz eta inoiz ikusitako ur handienak Errobikoak izan, inolako goragale zein arazo gabe iritsi zen Afrikako lurretara. Bidaia osoan ez ninduen bakarrik utzi. Ez alboratu. Ez eta inor niregana hurbiltzen utzi ere. Bera zaintzea omen nire lana eta alderantziz gerta. Bere beso gihartsuek babesten ninduten. Bere hatz laztuek ferekatzen. Eta bere begiek... Ai! bere begien soa.

Lurreratu orduko nasan ziren manu frantsesak konpainia desberdinak osatzeari ekin zioten, gazte bakoitza zegokion postura bideratuz. Nekez asmatuko genuen bidearen nekeza. Lehenik trenez zortzi orduko bidea eta ondoren mandoen laguntzaz beste hainbesteko oinez bidea.

Ezuste galanta hartu genuen bideari ekin eta oren gutxira, Aljerreko lurak Baigorrikoak bezain berdeak ziren!

Haatik ezustea berehala uxatu zitzaigun mandoen arrastoa basamortuko harri eta harea artean ezabatzen zioan heinean. Hura etsipena gure postura iristean. Ehun kilometroko bueltan ez zen ezta landare bakar baten arrastorik!

Gure postuan berrogei bat soldadu ginen, tartean lau euskaldun, eta guri laguntzeko hamar harki, zenbait lehenago felaga izanikoak. Postu osoa hesi

elektrikariz inguratua zen eta erdian hogeit metro luzeko dorrea. Non zaintza lanak bertatik egiten ziren.

Bizi-baldintzak zinez ziren gogorak, jasanezina zen bero itogarriaz gain iluntzero izaten baitziren felagen erasoak. Eskerrak elkarren babesa genuen. Elkarren laguntza. Zaintzako guardia tokatzen zitzaionean, inor ohartzeko, elkarrekin izaten ginen dorrean. Hura zen gure habia. Deserto hartako gure oasia. Baretasun apur bat aurki genezakeen toki bakarra. Hala ere habi horretan gozameneko hainbat ordu igaro arren bertan ezagutu genuen gerraren krudeltasuna. Herioren orroa. Amorrua.

Gau batez bere besoetara emana nintzela, bere eskuen ferekak beste ezertaz ohartzeko betarik ematen ez zidala, zenbait hots entzun genituen hesiaren kanpoaldean. Argiak bertara zuzenduz Etxeberri xiberutarra ikus ahal zatekeen harki baten laguntzaz bi felaga fusilez apuntatzen.

Hesiaren bestaldean izatea arraroa bazen, arraroagoa bi felagen eskuetan pala eta pikota ikustea.

Zaintza dorreko argiaren laguntzaz bi felagak hobi bat egiteari ekin zioten. Ordu erdiren buruan lana bukatzeaz zirela inolako miramendurik gabe, xiberutarrak felaga bat tirokatu zuen. Hobia hilobi bihurtuz. Eñaut mutu. Geldi. Ondoren, xiberutarrak bigarren felaga tirokatu zuen, harkiari biak lurperatzeko agindua emanez. Ordurako dorreko argia itzalia zen, "Athoz" ontziko ilusio eta ametsak itzaliak ziren bezala. Lur jota, dorreko lurrean etzanik negarrari eman zion Eñautek.

Ikusitakoa uler ezinik, gerra zentzugabe hartan, nigan jarri zituen bere ilusioak, bere indarra, bere ametsak. Ni bihurtu nintzen basamortu hartan bizitzeko ilusioari heltzen laguntzen zion helduleku bakarra. Baigorriko mendikaxko berdeak berriz ikusteko esperantza bakarra.

*"C'est la gloire de Dieux, c'est le grenier mystique,
C'est la bourse du pauvre et sa patrie antique,
C'est le portique ouvert sur les Cieux inconnus !"*

Hamaika negu igaro dira amets gaizto hartatik, eta hamaika udaberri elkarren aldamenean gaudela. Laztantzeko. Gozatzeko. Baretzeko. Batez ere baretzeko.

Gerraren krudeltasunak sorturiko erra baretzeko. Hilotzen orro ozenak, torturatuen uluak eta batez ere arima barruko garrasiak baretzeko.

Urte guzti hauetan ni izan naiz bere bizitzaren xedea eta esperantza bakarra. Heriotzaren aurrean bizirik irauteko helduleku bakarra.

Telefonoak jotzeari utzi dio.

Une horretan ohetik altxa eta gainontzeko liburuekin batera apalean utzi nau.